

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 30 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</p>	50-60 min.	20	10
<p>IDAZMEN PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	90 min.	30	15

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

3. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HEZIGABEAGOAK BAGINA

Helsinki egitekoa zen Guggenheim museoa ez da egingo udalbatzak kontra bozkatu duelako, eta udalbatzak kontra bozkatu du herritar gehienak egitasmoaren aurka agertu direlako, bereziki kultura-mundukoak. Martxoaren lehenean, orain bi hilabete pasatxo, eman zion Bilboko Guggenheim museoa baimena, eskubidea, onarpena, oniritzia Finlandiako hiriburuan eraiki behar zen museoari. Hori bai, aurretik baldintza jarrita: New Yorkeko Guggenheim museoko bilduma eta erakusketak European erakusten lehena Bilbok behar zuela izan. Bilboko museoko zuzendari eta Guggenheim marka munduan zabaltzeko fundazioaren buru Juan Ignacio Bidartek esan zuenez, Helsinki ezin zuen inondik inora mehatxu izan Bilborentzat. Hortik baldintzapena. Helsinki beti arrazoi izan dutela berresten zuen frogatzen zen: «Bilboko Guggenheim museoaren eredu balioan jarri eta aintzatetsi egiten du Helsinkiko egitasmoak».

Baina, ez da, bada, Bilboko eredu balioan jarriko, ezta oraingoan ere. Salzburgon, Rio de Janeiron, Seulen, Guadalajaran eta munduko beste hainbat hiriburutan ere izan dira museo beraren frankiziak egiteko proposamenak. Horietako batek berak ere ez du aurrera egin. Berlinen erakusketa-areto bat zabaldu zen orain hamabost urte, baina aurten itxiko ditu ateak. Ezin izan da Bilboko eredu ona frogatu. Salzburgoa bereziki polita izan zen: orain Helsinki bezala, bertako hiritarrak erabat kontra agertu ziren, eta orduko hartan Guggenheim museo nagusikoak, New Yorkekoak alegia, salzburgotarrak «hezi beharraz» ohartu ziren, eta komunikazio-, informazio- eta publizitate-kanpaina handi bat jarri zuten martxan. Ezta horrela ere. Helsinkiko herritarren heziketa ezaz oraingo ez dute ezer esan.

Agian, gaizkitxo ohituak zeuden Ameriketako guggenheimdarrak euskal herritarrokin. Ez zuten gu hezi beharrik izan, hain ginen esanekoak! Orduko New Yorkeko zuzendari nagusi eta Bilboko operazioaren bultzatzaile Thomas Krensek hitzez hitz esana: «Euskal herritarrek eskutik dabilzkit. Ezin dut sinetsi».

Bilbokoak ez du, beraz, mehatxurik izango. Ezta goraiamenik ere. Helsinki ez dute Guggenheimen artelanik nahi. Bi arrazoi eman dituzte halako erabakia hartzeko: egitasmoa garestiegia dela eta bertako arte munduari kalte egin diezaiokeela. Inori ez al zaizkio kultur kezka horiek ezagun egiten?

Nago, hamabost urteko ibilbidearen talaiatik begiratuta, Euskal Herrian izan ziren kezka bertsu horiek egiazatu baino ez direla egin. Uste dut baietz, dirutza gastatu zela eta gastatzen dela atzerrira begira bizi den museo bakar batean; euskal artistak, ez gurean, ez atzerrian zabaltzeko benetako borondaterik ez dela izan, bildumara sortzaile batzuen lanak bildu badira ere; bertako kulturari ez diola aparteko biziberritza ekarri; ez gaila kulturari jantziagoak orain, etab. Besterik da dagoeneko inori inporta ote zaigun hori dena, izan ere, bertako kulturak bizirik dirau (ozta-ozta bada ere) museo horrek inoizko diru-murrizketa erraldoiena ekarri bazion ere (gaurko krisiak eragindakoak txiki geratzen dira ordukoen aldean). Gainera, denok joaten gara Bilboko museora eta gozatu ere bai tarteka, orduan xahutu zen dirutza beste zerbaitetan gastatu izan balitz pentsatzeak buruko mina eragiten digu, nekatuegi gaude kontu bera esplikatzen segitzeko, egina dago eta kito, etab.

Orduko kritikek eta kezkek arrazoi zuten edo dute, bai, baina ez zen aurreikuspenetan asmatu. Esaterako, Robin Cembalest arte-kritikariak erabateko porrota izango zela esanez idatzi zuen honako hau: «Guggenheim bat, tokian tokiko kultur edukirik gabe, aberrazio bat da». Arrazoiak, baina aberrazioak arrakasta izan dezake, bistan da. «Egitasmo honek konnotazio kultural ahulak dituen herrialde batean baino ezin du arrakasta izan», hurrengo. Eta gurean izan du, Salzburgon eta Helsinki ez bezala. Ez al dugu gure kultur ondarea benetan estimatu beste horiek bezala? Ez al dugu maite? Hain kolonizatuak al gaude, kanpotik esan behar digute zerk balio duen eta zerk ez? Balio ote dugun edo ez? Hain sumisoak ote gara?

Miloi bat lagun joaten da urtero museora, nahiz eta horietatik Bilbotik kanpoko euskal herritarrek gutxieneoak diren, eta, beraz, esan daitekeen dirua jarri zutenek ez dutela bere museotzat. Bilbo eraldatu du, berritu, garbitu,

turistak erakarri. Ados. Hori arrakasta handia da, kulturarena ote den beste kontu bat da. Badakigu, orain ezin da Guggenheimen kontra ezertxo ere esan. Dena da urre, dena da onura, dena da irabazia. Eta horregatik da hain harrigarria Helsinkin nahi ez izatea, bertako herritarrak hain itsu egotea, eta harrigarriagoa bertako herritarrek erabakia atzera botatzeko gaitasuna izatea. Hain hezigabea izan al liteke? Nola egiten da hain hezigabea izateko?

AGIRRE, Lorea. Berria, 2012ko maiatzaren 4a. Egokitua.

- 1. Zergatik ez dute Guggenheim museorik egingo Helsinkin?**
 - a) Bilboko udalbatzak kontra bozkatu duelako.
 - b) Helsinkiarren eta bertako udalaren kontrako jarreragatik.
 - c) Bertako kultura-elkarteek Guggenheimenen proposamena onartu ez dutelako.
- 2. Zer baldintza jarri zion Bilboko Guggenheim museoak proiektuari?**
 - a) Museo nagusiko erakusketak Europan ikusgai izateko lehentasuna Bilbok izatea.
 - b) New Yorkeko bildumak Europan erakusgai jartzekotan, Bilbon baino ezin zela jarri.
 - c) Erakusketa berriak erakusten lehena Bilbok izan behar zuela, ondoren New York eta azkenik Helsinki.
- 3. Zergatik zioten New Yorkekoek salzburgotarrak «hezi behar» zirela?**
 - a) Ez zeukatelako New Yorkeko museoaren berri.
 - b) Edertasun-kontzeptu desberdinak dituztelako New Yorken eta Salzburgon.
 - c) Ez omen zekitelako proiektuaren alde onak baloratzen.
- 4. Zer iritzi zuten amerikarrek euskal herritarroi buruz?**
 - a) Haien esanetara agertu ginela.
 - b) Artez hitz egiterakoan ikusten zela ondo heziak ginela.
 - c) Ez geneukala hezi beharrik, hitza betetzen genuelako.
- 5. Egileak zergatik dio Bilboko Guggenheimek ez diola onurarik ekarri bertoko kulturari?**
 - a) Museoan kanpoko artisten lanak baino ez daudelako ikusgai.
 - b) Atzerrira kanpoko artisten lanak baino ez dituztelako bidaltzen.
 - c) Ez dutelako indar berezirik jartzen bertoko artisten lanak ezagutarazten.
- 6. Zerk ekarri zion diru-murrizketarik handiena euskal kulturari?**
 - a) Kultura-mezenas erraldoiak Bilboko museoaren pean jarri izanak.
 - b) Bilboko Guggenheim museoa irekitzeak.
 - c) Bizi izan genuen aurreko krisi ekonomikoak.
- 7. Zer iritzi zuen Robin Cembalest arte-kritikariak Guggenheim Bilbao irekitzean?**
 - a) Kulturarik gabeko herrialdeetan baino ezin zela Guggenheim museorik zabaldu.
 - b) Bertako edukirik gabeko museoa izan arren, arrakasta izan zezakeela.
 - c) Zentzugabea zela museoan kanpoko artisten sormen-lanak soilik egotea ikusgai.
- 8. Egilearen iritzi, arrakasta izan al du Guggenheim Bilbao museoak?**
 - a) Bai, baina kulturala baino gehiago, ekonomikoa.
 - b) Hala-holakoa, atzerritarrek baino ez baitute bisitatzen.
 - c) Ez, dirua jarri zutenek ez dutelako inbertitutakoa erreperatu.
- 9. Zer iritzi du artikulugileak helsinkiarrei buruz?**
 - a) Txarto deritzo helsinkiarren erabakitzeke ahalmenari.
 - b) Euskaldunok helsinkiarrek bezala jokatu izana nahiko luke.
 - c) Ez du ulertzen zergatik helsinkiarrek ez duten museoa nahi izan.

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

BULARRETIK MINTZORA

Bularretik Mintzora Galtzagorri elkarteak 2007an abiarazitako ekimena da, eta haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago. Helburu nagusia da 0-6 urte tarteko umeengan irakurketa-ohiturak sustatzea beraien ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian. Ikasturtez ikasturte ekimena herri gehiagotan zabaltzen joan da, baina orain dela gutxira arte 3-6 adin tartean landu izan dute bakarrik. Kontua da Galtzagorrik aspalditik zeukala 0-3 urte bitartekoekin ere lantzeko asmoa eta, horretarako, azkenaldian, hainbat saiakera egin izan ditu. **10** Hala, osasun-zentroko arduradunekin harremanetan jarri eta lortu dute haurdun dauden emakumeekin eta jaioberriekin ere irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatzen hastea.

Bularretik Mintzora ekimena haurra amaren sabelean dagoen unetik hasten da, etapa bakoitzak bere premiak dituelako eta une guztiak garrantzitsuak direlako garapenean. «Lehenengo hilabete eta urteetan errealitatearekin harremanak izateko, haurrak dituen komunikatzeko tresna nagusiak zentzumenak, mugimendua, erritmoa eta jolasa dira. Eta tresna horiek aurkitzen ditu irakurketaren eta kontaktaren bidez heltzen zaizkion istorio txikietan», azaldu du Zubizarretak. **11** Lehen hilabeteetan, sehaska-kantuak abestuz, errima xume eta goxoak xuxurlatuz, irudi eder batzuk eskainiz. Gerora, «irakurtzen ematea» da ipuin bat kontatzea edo poesia bat erabilia umearekin jolas bat egitea. Horrela, poliki-poliki, irakurketa eta ipuina bera oinarritzko behar bilakatzen dira haurrarentzat errealitatea ezagutzeko, estimulu anitzak eskaintzen dizkiotelako eta bere zentzumen guztiak suspertu. Sehaska-kanta bat abesterakoan, poesia bat irakurtzerakoan, ipuin bat kontatzerakoan edo marrazki bat erakusterakoan, haurraren maila psikologiko eta afektibo berean komunikatzen ari gara, irudimenaren, fantasiaren, errealitatearen, keinuen eta hitz-jokoen mailan jartzen garelako. Gainera, une horietan, «irakurtzen ematen» diogunean, komunikazio afektiboa sortzen da umearen eta helduaren artean, lotura afektiboa indartzeko erabakigarria dena. **12**

Abusu-La Peña Bilbo eta Arrigorriaga artean dagoen auzoa da –bi udalerriek partekatzen dute– eta bertako osasun-zentroko arduradun Jaime Fernandezek azaldu digu zergatik den hangoa *Bularretik Mintzora* ekimena abiarazi duen Osakidetza lehen osasun-zentroa. **13** Dinamika horretan murgilduta zeudela, 2013aren hasieran liburutegiko arduradunak eta Galtzagorriko Itziar Zubizarretak proposamen berri bat jarri zuten Fernandezen mahaian. «Proiektua ilusionagarria eta polita iruditu zitzaigun, eta baiezkoa eman genuen birritan pentsatu gabe», azaldu du Fernandezek. Ondoren, Abusuko ikastola eta eskola ekimen honetara batu ziren, auzo osoko elkarlana martxan jarrita.

Lehenik eta behin, eskoletako irakasleei eta osasun-zentroko pediatria, emagin eta erizainei prestakuntza berezia eman zien Galtzagorrik. **14** Modu berean, erraztu egin dute ume horiek sei hilabete betetzerakoan liburutegiko bazkide egin ahal izatea eta liburuak fisikoki ere ezagutzen hastea. Eta Galtzagorrik adin tarte bakoitzeko «errezetak» prestatzen ditu gurasoek eta hezitzaileek praktikan jartzeko material (abesti, joko, ipuin...), argibide eta aholkuekin: jaiotzen denetik sei hilabetera bitartekoa, 6tik 12ra artekoa, 12tik 18ra artekoa eta 18 hilabetetik 24ra bitartekoa, besteak beste. Galtzagorriko Itziar Zubizarretak oso argi dauka *Bularretik Mintzora* proiektuak ezarritako helburuak betetzeko ezinbestekoa dela, materiala banatzeaz gain, guraso eta hezitzaileei prestakuntza, «errezetak» eta argibideak ematea. **15**

Bularretik Mintzora proiektuak ez du euskara helburu nagusi, baina irakurzaletasuna eta trebetasun kognitiboak garatzeko euskara erreminta nagusietako bat da «helduaren eta umearen arteko une magiko hori lortzeko», Zubizarretaren esanetan. **16**

Bularretik Mintzora proiektu honetan 250 ume baino gehiagorekin dabilta lanean, bai eta haurdunaldiko laugarren hilabetetik aurrera dauden hainbat amarekin ere. Ume horiekin eta haurdun dauden ama horiekin kontsultan zuzenean lan egiten duten osasun-langileek onartu digute oso gustura daudela, Galtzagorrik gidatutako proiektua orain arte landutako helburuekin bat datorrelako eta «guraso eta umeen artean lotura sendoagoa lortzeko oso erreminta ona» delako ere bai. Eta familiek ere proiektuari oso harrera ona egiten diotela azaldu dute.

Osatuberri, 2013ko ekaina. Egokitua.

- A.** «Beti izan dut irakurzaletasunaren aldeko jarrera eta pentsatu nuen osasun-zentroko itxarongela irakurtzeko leku egokia zela». Hala, bertara egunkariak ekartzen hasi ziren eta gerora Abusuko liburutegian zaharkitutako liburuak osasun-zentrora ekartzeko hitzarmena egin zuten.
- B.** Berez, liburutegiko arduradunen ekimena izan da proiektua, eta Abusu Sarean elkarreak finantzatzen du.
- C.** «Orain dela urte batzuk zenbait ospitalek guk prestatutako materiala bestelakorik gabe banatu zuten; baina, ez zirenez bitarteko gehiago jarri, helburu gutxi bete ziren. Izan ere, profesionalen beraien eta umearen inguruan dauden helduen konpromisoa ezinbestekoa da, eta hori landu eta zaindu egin behar da», gehitu du.
- D.** «Ume bati irakurtzen ematen diogunean, haurraren garapen intelektuala, emozionala, soziala eta, aldi berean, hizkuntzarena estimulatzeko» ari garela diosku.
- E.** Eta, era berean, euskarari aukera bat emateaz gain, hizkuntza honetara modu atsegin eta errazean hurbiltzeko aukera ematen zaio familia askori.
- F.** Horrela, «Abusuko liburutegiak ambulatorioan egiteko proiektu bat eskatu zuenean, Galtzagorritik *Bularretik Mintzora* egitasmoaren egokitzapen bat eskaini genion eta hortik aurrera plangintza esperimental hau garatzen hasi ginen», azaldu du Galtzagorri elkarteak Itziar Zubizarretak.
- G.** Horren ostean, elkarreak *Bularretik Mintzora* proiektuko materiala eraman zuten osasun-zentrora: CDa, liburua... Eta 0 eta 3 urte arteko gurasoei zuzendutako inkesta banatu zen, irakurketari lotutako ohiturei buruzkoa.
- H.** Eta ez hori bakarrik, lotura afektibo finko horrek umeari beldurra uxatu eta segurtasuna ematen dio bere kabuz beste gauza batzuk jorrazteko eta ikasteko.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak							

Sobera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Irakurri ondorengo testua. Hurrengo orrian agertzen diren **bi zutabeetako esaldiak** elkarrekin **lotu** behar dituzu (1, 2, 3...) eta (A, B, C...). Osatutako ideiek bat etorri behar dute testuko informazioarekin.

Irakurri testua lehenengo.

Bigarren zutabeko esaldi bat sobera dago.

GIZA GORPUTZAREN MOLDAERA ARTIFIZIALA

Gizakiaren ezagutza eta bere gorputza ulertzea estu-estu lotuta daude. Gorputzaren bidez, informazioa jaso eta eman egiten dugu, identifikatu egiten gara, baita besteengandik bereizi ere. Gure gorputza eraiki eta eraldatzeko gaitasuna daukagu gizakiok. Horrela, bizi garen eta inguratzen gaituen ordena naturalaren eta sozialaren isla bilaka dezakegu gorputza bera.

Gizakiaren gorputzak itxura desberdina dauka, askotan, gizakiaren bizilekuaren arabera: altuera desberdinak, azal-kolore desberdinak, begien forma desberdinak... Aldaera horiek gure geneetan daude idatzita. Gizakiaren antzekotasunek eta desberdintasunek aniztasun biologikoa erakusten digute, baina baita aniztasun kulturala ere. Izan ere, gorputz-formen bariazioak mundu kulturalari erantzuten dio hein handi batean. Hori, besteak beste, gorputza artifizialki moldatzeko ohiturari lotzen zaio. Horietako hainbat praktika aldi baterakoak izaten dira: belarri, sudur eta ezpainen perforazioa, gorputza margotzea... Beste aldaera batzuk, berriz, betiko izaten dira; hala nola, jaioberrien buruaren forma aldaraztea, hortzak itxuraldatzea, tatuatzea... Alterazio horien asmoak eta esanahiak egiten dituen taldearen arabekoak dira: batzuk taldearen identifikazio-markak dira; beste batzuk, ordea, gizarte-mailaren erakusle; badira igarobide-errituen parte direnak edo edertasuna helburua dutenak ere bai.

Burezurra luzatzearen praktika ohitura zaharra bezain zabaldua izan da. Munduko bost kontinenteetan topa ditzakegu garezurreko elongazioaren adibideak. Buruko hezurak bi urte bete arte oso elastikoak direla baliatuz, garezur-deformazioa bitarteko ezberdinekin presioa eginez lortzen zen. Bendak, faxak, masajeak, egurrezko moldeak... erabili izan dira. Egipton, burezurren alterazio artifiziala faraoiei eta gizarte-maila altuko jendeari egiten zitzairen. Bestalde, XVIII. mendeko Frantzia, memoria handitzen zelako sinesmenagatik egiten zen elongazioa. Amerikan, berriz, maia- eta azteka-herri batzuek estetika-arrazoiengatik luzatzen zuten kaskezurra.

Buruaren forma luzatu beharrean, lepoa luzatzen dute «jirafa-emakume» deritzenek. Padaung tribuetako neskatoei eraztun pisutsu batzuk jartzen dizkiete lepoan, lepaiztaia pixkanaka beheraka presionatuz eta lepoa luzatuz. Padaung emakumeek edertasuna islatzen duen ohitura kultural bat besterik ez dela diote. Gaur egun, turismoa erakartzeko erreklamo eta diru-iturri bilakatu da.

Emakume txinatarren oin txikiak beste adibide ezagun bat dugu. Neskatoei oinak bendetan biltzen zizkieten 4-6 urte zituztenetik, oinak haztea galarazteko: oin «perfektuek» 8-10 cm-koak izan behar zuten. Gizonezkoek ohitura erakargarritzat hartu zuten heinean, oinak lotzea ia gizarte-klase guztietara hedatu zen. Andrazkoen oin txiki eta finak edertzat jotzen ziren eta emakumearen mugimendua femenino eta dotore egiten zutela esaten zen, edertasunaren eta erotismoaren ikur bilakatuz.

Aipatutako praktikez gain, badira gorputzaren aldaera helburu duten eta espazio eta denbora oso desberdinetan barreatutako ehunka adibide gehiago. Adibidez, Balin (Indonesia) nerabeen hortzak limatzeko erritua konfirmazio-zeremonia bat da. Uzbekistanen, edertasunaren eta prestigioaren goreneko ezaugarriak urrezko hortzek dituzte; izan ere, bada urrezko hortzak jartzeko, benetako hortzak erauzten dituenik ere. Polinesiako komunitateetan, tatuajeak, funtzio estetikitik harago, errespetu iturri

ziren: zenbat eta tatuaje gehiago izan, orduan eta errespetatuagoa zen pertsona. Hainbat kultura afrikarretan, emakumeek eskarifikazioa (azalean ebakiak egitea) edertasun-formatzat dute. Elisabet Bavariako erreginak, XIV. mendean, eskote handiak jarri zituen modan eta, batzuetan, emakumearen titiburuak agerian geratzen ziren eta makillatu eta zulatu egiten zituzten, baita batetik bestera urrezko kate bat jarri ere.

Ispiluan begiratu eta jabetuko gara gorputzaren eraikuntza eta aldaera gure existentziaren parte direla. Edertzat zer jo daitekeen eta zer ez hausnartzeko irizpideak denborarekin eta eremu geografikoen arabera aldatuz joaten dira. Lehen ederra zena jada ez zaigu ederra irudituko agian. Hemen ederra dena han itsusiztat jo daiteke. Hala ere, aldaketak aldaketa, bada aldatu ez den zerbait: edertasunean sinesten dugu, baita edertasunak erotismoarekin eta balio sozialarekin duen harremanean ere.

ASTIASARAN, Eli. <www.gaiak.net>, 2013ko maiatzaren 26a. Egokitua.

1. ZUTABEA

17. Gizakiok gorputza nahita molda dezakegu, talde baten kide garelako fisikoaren bidez adierazteko;
18. Gure gorputzaren ezaugarri bereizgarri batzuk genetikak emandakoak dira,
19. Bost kontinenteetan egiaztatu dute haurrei burezurra luzatzeko ohitura;
20. «Jirafa-emakumeek» ederrago egoteagatik jartzen omen dituzte eraztunak lepoan;
21. Txinatarren ustez erakargarriagoak dira oin txikidun emakumeak;
22. Kultura baten baino gehiagotan moldatzen dituzte hortzak;
23. Polinesiar tatuajeak ez dituzte edertasunagatik egiten;
24. Titiburuetan arrakadak jartzea gauza modernotzat jotzen da,
25. Edertasunaren kontzeptua lekuaren eta garaiaren arabera aldatzen da;

2. ZUTABEA

A. batzuetan mehetu egiten dituzte eta beste batzuetan, aldiz, urrezkoak jarri.
B. bisitarien eskupekoa lortzeko ere balio die.
C. baliabide ezberdinak erabili izan dira, eta arrazoi desberdinengatik egin izan da.
D. gizakiaren edertasunarekiko interesa, baina, mugagabea da.
E. baina giza gorputzaren zenbait moldaera ez ditugu jaiotzetik.
F. zientziak ezin izan du argitu praktika hori zer dela eta egiten zen.
G. desberdintasunak markatzeko ere erabil dezakegu gaitasun hori.
H. baina duela zazpi mende bultzatutako estetika da.
I. umetatik loturak jartzen zizkieten horretarako.
J. Afrikan emakume batzuek mozketak azalean bai, ordea.

1. ZUTABEA	17	18	19	20	21	22	23	24	25
2. ZUTABEA									

Sobera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

3. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN
BEHAR DITUZU**

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** egin behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA:

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna denez, herriko euskara-elkarteak hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu nahi ditu eta horretarako hainbat udal-baliabide eskatu zituen: eszenatokia, txosna, hitzaldi-gela, plaza okupatzeko baimena...

Udaleko teknikaria zara. Idatzi euskara-elkarteari esateko zein baliabide erabili ahal dituzten, zein ez eta zergatik, eta irtenbideak proposatu.

■ **2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako.**

- Egoera kontuan hartu eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

Egoera: Gaur goizean albistegian Bangladesheko ehun-fabrika bat erre dela eta bertan 112 langile hil direla entzun duzu. Aurtengo halako bigarren sutea izan da eta urtero gertatzen da antzeko ezbeharren bat.

Kezkatuta eta haserre zaude, eta herriko aldizkarian idaztea pentsatu duzu.

Gaia: ZER KONTSUMO MOTA EGITEN DUGU?

Mendebaldeko marka famatuentzako arropak ekoizten dituen patronal esklabozalea ez da beti egon Indian: 1980ko hamarkada arte nekazaritza zen bertako oinarria.



Ehun-lantegietako langile gehienak emakume baserritar txiroak dira: hilean 30 € irabazten dute, astean sei egunez 10na ordu lanean arituta.



Pagotxa ederra dute multinazionalak Ekialdean: eskulana ia doan, sindikaturik apenas, makinaren inportazioak ez du aduanan zergarik, ustelkeria estatu-maila guztietan...

-
- Ba al dakigu non eta nola ekoizten diren kontsumitzen ditugun produktuak?
 - Produkzio-jarduerak nola eragiten diote enpresak kokatuta dauden inguruneari?
 - Produktu bat erostean, ekoizpen-baldintzetan pentsatzen dugu ala guk ordaindu beharreko prezioaz baino ez gara arduratzen?
 - Zer egin genezake arazo honen aurrean?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

3. HE / IRAKURMEN PROBA

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «HEZIGABEAGOAK BAGINA»

1	B	6	B
2	A	7	C
3	C	8	A
4	A	9	B
5	C		

- 2. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: «BULARRETIK MINTZORA»

Hutsuneak	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	F	D	H	A	G	C	E

B aukera sobera dago.

- 3. ariketa: lotu bi zutabeak.
- Irakurgaia: «GIZA GORPUTZAREN MOLDAERA ARTIFIZIALA»

1. ZUTABEA	17	18	19	20	21	22	23	24	25
2. ZUTABEA	G	E	C	B	I	A	J	H	D

F aukera sobera dago.